

KOD: A107

ARKITEKTURA (HIRI PAISAIA)

***LEHEN ARIKETA.
BIGARREN PROBA***

***Denbora, gehienez: 120 minutu.
Galderak: 120.***

EREDUA:

D

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun eredia.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
 - Asmatuak: 1.00
 - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Ereduren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

1. Europa jauregia Gasteizko Udalak egindako erreferentziazko lorezaintza lan batzuen erakusgarria da: landarezko fatxada eta estalkia. Lorategi bertikalari dagokionez, adieraz ezazu zein ideiatan oinarritu zen diseinua eta landareen hautaketa:
 - a) Euskal Herriko landare komunitateetan barrena doan ibilbidea proposatzen du lorategiak, iparraldetik (kostaldea) hegoalderaino (Ebro ibaia).
 - b) Orain arte European Green Capital izendatutako hiriak —Gasteiz barne— ordezkatzan dituzten landare komunitateetan barrena doan ibilbidea proposatzen du lorategiak (sariaren edizio berri bakoitzean berritu eta eguneratzen da landare-bilduma).
 - c) Iberiar penintsulako landare komunitateetan barrena doan ibilbidea proposatzen du lorategiak.
 - d) Udalerriko landare komunitateetan barrena doan ibilbidea proposatzen du lorategiak, hiriaren ertzetik Gasteizko Mendietaraino.

2. Europa jauregia Gasteiz hiribidean dago, eta hori eraberritzerakoan hiri-azpiegitura berdearen kontzeptuan oinarritutako irizpideak hartu dira kontuan. Adieraz ezazu zerrenda honetako zein ekintza ez datorren bat irizpide horiekin:
 - a) Zoladuraren iragazkortasuna hobetzea.
 - b) Hiri baso jangarri bat landatzea.
 - c) Korridore berde bat sortzea espezie autoktonoak baliatuz.
 - d) Euri-urak eta hondakin-urak bereizteko sare bat sortzea.

3. Zer xedatzen du Euskal Herriko Natura Babesteko Legearen 1. artikulua?
 - a) Funtsezko prozesu ekologikoak eta basa fauna eta landare espezieen habitatak zaintzea, aniztasun genetikoa bermatu ahal izateko, hala natur inguruneetan nola hiri inguruneetan.
 - b) Funtsezko prozesu ekologikoak eta basa fauna eta landare espezieen habitatak zaintzea, aniztasun genetikoa bermatu ahal izateko, hiri inguruneak izan ezik.
 - c) Funtsezko prozesu ekologikoak eta basa fauna eta landare espezieen habitatak zaintzea, aniztasun genetikoa bermatu ahal izateko.
 - d) Funtsezko prozesu ekologikoak eta basa fauna eta landare espezieen habitatak zaintzea, aniztasun genetikoa bermatu ahal izateko, hiri inguruneetan eskusiboki.

4. Zer xedatzen du Euskal Herriko Natura Babesteko Legearen 2. artikulua?
 - a) Azpiegitura-lanek, eta eraikuntzek oro har, horien inpaktua onartzeko modukoa bada, natura eta ikusmirari egokituak behar dute izan.
 - b) Azpiegitura-lanek, eta eraikuntzek oro har, interes orokorrekoak badira, ez dute natura eta ikusmirari egokitu behar.
 - c) Azpiegitura-lanek, eta eraikuntzek oro har, ez dute natura eta ikusmirari egokitu behar interes partikularrekoak badira.
 - d) Azpiegitura-lanek, eta eraikuntzek oro har, natura eta ikusmirari egokituak behar dute izan beti.

5. Euskal Herriko Natura Babesteko Legearen 3. artikulua araberan, agiri hauek dira aipatutako legearen printzipioak eta helburuak aurrera eraman ahal izateko berariazko tresnak:
 - a) Natura Baliabideen Antolamendu Plana, babestutako naturaguneen izendatzea, Arriskuan dauden Espezieen Zerrenda, eta udalaren azpiegitura berderako planak.
 - b) Natura Baliabideen Antolamendu Plana, babestutako naturaguneen izendatzea, Arriskuan dauden Espezieen Zerrenda, eta berdeguneei buruzko udal ordenantzak.
 - c) Natura Baliabideen Antolamendu Plana, babestutako naturaguneen izendatzea, eta Arriskuan dauden Espezieen Zerrenda.
 - d) Natura Baliabideen Antolamendu Plana, babestutako naturaguneen izendatzea, Arriskuan dauden Espezieen Zerrenda, eta garapen ekonomikorako udal plan estrategikoak.

6. Kontzeptu hauetako zein ez da jotzen babestutako naturgunearen kategoriatzat Euskal Herriko Natura Babesteko Legean:
- Natura parkea.
 - Zuhaitz apartekoa.
 - Biotopo babestua.
 - Parke nazionala.
7. Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 1. artikulua xedatzen duenez, hau da legearen xedea, besteak beste:
- Aireak, urak, lurzoruak, paisaiak, florak eta faunak, beren parametro eta elkarrekintza egokiekin, giza bizia garatzen deneko ingurugiroa osatzen dute. Era jasangarrian erabiliko da.
 - Aireak, urak, lurzoruak, paisaiak, florak, faunak eta hiriguneek, beren parametro eta elkarrekintza egokiekin, giza bizia garatzen deneko ingurugiroa osatzen dute. Era jasangarrian erabiliko da.
 - Hiriguneek, beren parametro eta elkarrekintza egokiekin, giza bizia garatzen deneko ingurugiroa osatzen dute. Era jasangarrian erabiliko da.
 - Azpiegitura sareak, bere parametro eta elkarrekintza egokiekin, giza bizia garatzen deneko ingurugiroa osatzen du. Era jasangarrian erabiliko da.
8. Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 2. artikulua xedatzen duenez, hau da legearen helburuetako bat:
- Hiriguneetako biztanleak diren aldetik, herritarren bizi-kalitatea hobetzea.
 - Edozein ingurunetan bizi direla ere, herritarren bizi-kalitatea hobetzea.
 - Espazio natural babestuak erabiltzen dituzten neurrian, herritarren bizi-kalitatea hobetzea.
 - Herritarren bizi-kalitatea hobetzea ez da helburuetako bat.
9. Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 2. artikulua xedatzen duenez, hau da legearen helburuetako bat:
- Ingurugiro-kontsiderazioak eta kontsiderazio sozio-kulturalak era eraginkorrean hiri-plangintzan eta ondare historikoaren babeste-lanean sartuta, hiri-ingurugiroaren jasangarritasuna bermatzea.
 - Garapen ekonomikoaren alorreko kontsiderazioak era eraginkorrean hiri-plangintzan eta ondare historikoaren babeste-lanean sartuta, hiri-ingurugiroaren jasangarritasuna bermatzea.
 - Hiri-ingurugiroaren jasangarritasuna ezein modutan bermatzea ez da helburuetako bat.
 - Ingurugiro-kontsiderazioak era eraginkorrean hiri-plangintzan eta ondare historikoaren babeste-lanean sartuta, hiri-ingurugiroaren jasangarritasuna bermatzea.
10. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 2. artikulua araberan, hau da dekretuaren helburuetako bat:
- Hiri-inguruetako paisaiak hobetzea: bereziki, aldirietakoak eta biztanle-guneetara sartzeko bideetakoak.
 - Hiri-inguruetako paisaiak hobetzea, oso-osorik eta salbuespenik gabe.
 - Hiri-inguruetako paisaiak hobetzea, bereziki hirigune historikoetakoak.
 - Hiri-inguruetako paisaiak hobetzea ez da helburuetako bat.
11. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 2. artikulua araberan, hau da dekretuaren helburuetako bat:
- Paisaiari berez balioa ematea, ekonomia edo turismo faktoreez harago.
 - Paisaiari balioa ematea, ekonomia-faktore bereizgarri gisa eta turismorako baliabide gisa.
 - Paisaiari balioa ematea, justizia soziala, integrazioa, inklusioa, genero-ikuspegia eta ekonomia zirkularra lortzeko faktore gisa.
 - Paisaiari balioa ematea ez da helburuetako bat.

12. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren arabera, garapen tresna hauetako zeinek du goragoko maila:
- Paisaiaren zehaztapenak.
 - Paisaiaren ekintza-planak.
 - Paisaiaren katalogoak.
 - Paisaian integratzearen azterlanak.
13. Gasteizko Udalak ba al du onetsi eta argitaratutako berdeguneen gida planik?
- Bai, 1983an onetsi zen, eta indarrean dago.
 - Bai, 1983an onetsi zen, baina zaharkituta dagoenez berrikusten ari da.
 - Bai, 2003an onetsi zen, eta indarrean dago.
 - Ez.
14. Gasteizko Udalak ba al du onetsi eta argitaratutako hiriko zuhaitzien gida planik?
- Bai, 1983an onetsi zen, eta indarrean dago.
 - Bai, 1983an onetsi zen, baina zaharkituta dagoenez berrikusten ari da.
 - Bai, 2003an onetsi zen, eta indarrean dago.
 - Ez.
15. Gasteizko Udalak ba al du onetsi eta argitaratutako hiriko zuhaitzien kudeaketa planik?
- Ez du hiri osorako onetsi eta argitaratutako kudeaketa planik, baina horrekin lotutako esperientzia pilotu bat garatu du Zaramaga eta Pilar auzoetan.
 - Ez du hiri osorako onetsi eta argitaratutako kudeaketa planik, baina horrekin lotutako esperientzia pilotu bat garatu du Salburua eta Zabalgana auzoetan.
 - Bai, 1983an onetsi zen, baina zaharkituta dagoenez berrikusten ari da.
 - Bai, 2003an onetsi zen, eta indarrean dago.
16. Gasteizko Udalak ba al du onetsi eta argitaratutako mugikortasun iraunkorraren eta espazio publikoaren planik?
- Bai, 2007an idatzitakoa.
 - Bai, 1967an idatzitakoa.
 - Bai, 1987an idatzitakoa.
 - Ez, oraingoz zirriborroa baino ez du, eztabaidatzen eta zuzentzen ari dena.
17. Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Plana. Diseinu-jarraibide hauetako zein ez du jasotzen planak?
- Trafikoa berrantolatzea, iragaitzako ibilgailuek oinarrizko bide-sare batetik zirkulatu dezaten, bigarren mailako bideak libre utzita.
 - Oinezkoen eta ibilgailu pribatuen arteko bizikidetzak maximizatzen duen oinezkoentzako sarea osatzea, bi mugikortasun moduetarako bide-azpiegitura bakarra erabiltzea ahalbidetuko duena.
 - Garraio publikoaren sareak berriro definitzea, irisgarritasunari eta estaldurari dagokienez sistemaren eraginkortasuna hobetzeraren.
 - Kutsaduraren eta zarataren ingurumen-inpaktua gutxitzea kaleetan.
18. Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Plana. Zein jarraibidek definitzen du Planean azaldutako superetxadiaren kontzeptua:
- Garraio mota guztietarako sare bateratua ezartzea.
 - Lurzorua libre uztea bideei lekua kenduz, espazio eraikigarri berriak lortzearen, hiria trinkoagoa izan dadin.
 - Garraio mota guztietarako sare berezia ezartzea.
 - Lurzorua libre uztea bideei lekua kenduz, ekipamenduetarako espazio berriak lortzearen, herritar orok zerbitzu publikoetarako sarbide bera izan dezan.

19. Prozesu hauetako zein ez da kutsatutako lurren bioerremediaziorako tekniken barruan sartzen?
- Biodibertsitate edafikoa hobetzea, medeapenen bitartez.
 - Lurreko eragile kutsagarriak neutralizatzea, landareen sustraitze-jardueraren bitartez.
 - Kutsatzaile organikoak degradatzen dituzten errizosferako mikroorganismoen hazkundera eta jarduera suspertzea.
 - Osagai kutsatzaileak bahetu, hautatu, bereizi eta desagerrarazteko prozesu mekanikoa.
20. Kutsatutako lurren bioerremediaziorako teknikak dagoeneko erabili dira Gasteizko udalerrian.
- Egia da, Jundizko industrialdean aplikatu dira gutxienez.
 - Egia da, Lasarteko garai bateko legar-hobietan aplikatu dira gutxienez.
 - Egia da, Eraztun Berde osoan erabiltzen dira oro har.
 - Ez da egia, orain arte ez dira inoiz aplikatu.
21. Kutsatutako lurren bioerremediazioarekin lotuta, Gasteizko Udalak europar proiektu batean hartu du parte. Zein da proiektuaren izena?
- MODERN proiektua, CIVITAS europar programaren barrukoa.
 - PhytoSUDOE proiektua, INTERREG europar programaren barrukoa.
 - POLIS proiektua, INTELLIGENT ENERGY EUROPE europar programaren barrukoa.
 - Ez da egia, Udalak ez du horrelako europar proiektu batean parte hartu.
22. Une honetan, ba al da hondakin organikoen tratamendurako azpiegitura publikorik Gasteizko udalerrian?
- Bai, Jundizko Tratamendu Mekaniko Biologikorako lantegia.
 - Bai, Gardelegiko Tratamendu Mekaniko Biologikorako lantegia.
 - Bai, San Martineko Tratamendu Mekaniko Biologikorako lantegia.
 - Ez.
23. Adieraz ezazu zerrenda honetako zein produktu ez den konposta egiteko erabili behar, kopurua txikia bada ere:
- Hosto freskoak.
 - Haragia eta arraina.
 - Tratatu gabeko zuren zerrautsa eta txirbilak.
 - Egunkariak.
24. Adieraz ezazu zein den konpostatze-prozesuko etapan hurrenkera zuzena:
- Mesofiloa, termofiloa, hoztea eta umotzea.
 - Umotzea, mesofiloa, termofiloa eta hoztea.
 - Hoztea, mesofiloa, termofiloa eta umotzea.
 - Umotzea, hoztea, termofiloa eta mesofiloa.
25. Adieraz ezazu parametro hauetako zein ez den neurtzen konpostatze-prozesuetan:
- Karbono/hidrogeno erlazioa.
 - Potasio/merkurio erlazioa.
 - Hezetasuna eta tenperatura.
 - Azidotasuna (pH).
26. Europako Batzordeak emandako eta Udalak "Gasteizko hiri-azpiegitura berdea" agirian bere egindako parametroen arabera, zerrenda honetako zein zerbitzu ez da jotzen ekosistemen ondasun eta zerbitzutat?
- Komunikazio zerbitzuak.
 - Habitat zerbitzuak.
 - Arutze zerbitzuak.
 - Hornikuntza zerbitzuak.
27. "Gasteizko hiri-azpiegitura berdea" agiriaren arabera, zein alderdi eta gai ez da gakotzat jotzen azpiegitura berderako?
- Prozesu naturaletan oinarritutako irtenbideak baliatuz ingurumenarekin lotutako arazoei aurre egiteko tresna da.
 - Hiriko elementu natural guztiei itxura homogeneo eta bateratua eman behar die.

- c) Biodibertsitatea da azpiegitura berdearen ardatz nagusia.
d) Espazioaren eta denboraren planifikazioa eskatzen du, eta diseinu egokia.
28. "Gasteizko hiri-azpiegitura berdea" agiriaren arabera, zein dira hiriko azpiegitura berdearen sistema osatzen duten elementu nagusiak?
- a) Nukleoak, nodoak eta konektoreak.
b) Nukleoak, eraztunak eta konektoreak.
c) Parkeak, biribilguneak eta lorategiak.
d) Nukleoak, korridore ekologikoak eta konektoreak.
29. Udalak argitaratutako hiri-azpiegitura berdearen sistemaren proposamenean, zer kategoria du Florida parkeak?
- a) Nodo nagusia.
b) Bigarren mailako nodoa.
c) Konektorea.
d) Nukleoa.
30. Non dago zuhaitzaren sistema erradikularra?
- a) Enborrean.
b) Hostoetan.
c) Adarretan.
d) Sustraietan.
31. Adieraz ezazu zein kontzeptuk definitzen duen onddo baten eta zuhaitz baten arteko sinbiosi erlazioa:
- a) Mikorriza.
b) Mikrorriza.
c) Osmosia.
d) Ez dago horrelako sinbiosi erlaziorik.
32. Parke eta lorategietako instalazioetan legionella prebenitzeko har daitezkeen neurriekin lotuta, adieraz ezazu zein den baieztapen zuzena bakterioa ugaltzeko tenperatura tarteari dagokionez:
- a) 20 °C-tik behera, latente dago; 20 °C-tik 85 °C-ra, aktiboki ugaltzen da; 90 °C-tik gora, ez da ugaltzen, eta 150 °C-tik gora, hil egiten da.
b) 10 °C-tik behera, latente dago; 10 °C-tik 65 °C-ra, aktiboki ugaltzen da; 70 °C-tik gora, ez da ugaltzen, eta 90 °C-tik gora, hil egiten da.
c) 20 °C-tik behera, latente dago; 20 °C-tik 45 °C-ra, aktiboki ugaltzen da; 50 °C-tik gora, ez da ugaltzen, eta 70 °C-tik gora, hil egiten da.
d) 30 °C-tik behera, latente dago; 30 °C-tik 40 °C-ra, aktiboki ugaltzen da; 45 °C-tik gora, ez da ugaltzen, eta 50 °C-tik gora, hil egiten da.
33. Zientziaren zein adar arduratzen da lurraren osaera eta izaeraz?
- a) Edafologia.
b) Topografia.
c) Botanika.
d) Limnologia.

34. Zer da hipotonia hiriko zuhaitzen maneiatze eta kudeaketaren alorrean?
- Adar baten goiko aldeko ardatzak beheko aldekoak baino gehiago hazten diren egoera.
 - Adar baten beheko aldeko ardatzak goiko aldekoak baino gehiago hazten diren egoera.
 - Sustrai baten beheko aldeko ardatzak goiko aldekoak baino gehiago hazten diren egoera.
 - Sustrai baten goiko aldeko ardatzak beheko aldekoak baino gehiago hazten diren egoera.
35. Zer da usteltzearen konpartimentazio-prozesua zuhaitz batean?
- Zuhaitzaren defentsa prozesu naturala da, patogenoen hedapena mugatu eta eragozten duena.
 - Zuhaitzaren sustraiaren defentsa prozesu naturala da, patogenoen hedapena mugatu eta eragozten duena.
 - Zuhaitza maneiatzeko teknika da, patogenoen hedapena mugatu eta eragozten duena.
 - Zuhaitzaren sustrai-sistema maneiatzeko teknika da, patogenoen hedapena mugatu eta eragozten duena.
36. Hiriko zuhaitzen maneiatze eta kudeaketari gagozkiolarik, alderdi hauetako zein izan beharko luke ardura nagusia landatu ondoren?
- Lurraren tenperatura maila egokia.
 - Lurraren hezetasun maila egokia.
 - Eguzkitze egokia.
 - Zuhaitzaren babes fisiko egokia.
37. Zein fasetan erabiltzen da berraldatzearen teknika landare batean?
- Ereintza eta landaketaren artean.
 - Ereiten den bitartean.
 - Landatzen den bitartean.
 - Landaketaren ondoren.
38. Zenbait berraldatze egin ondoren, zein arrisku izan dezake zuhaitzak?
- Sustrai sistema hierarkizatua berregiteko ahalmena galtzen du zuhaitzak.
 - Sustrai sistema faszikulatua berregiteko ahalmena galtzen du zuhaitzak.
 - Sustrai sistemaren bidez elikagaiak xurgatzeko ahalmena galtzen du zuhaitzak.
 - Zuhaitzak urkila itxurako enbor bikoitzeko sistema gara dezake.
39. Egoera hauetako zein ez da zuhaitza inaustearen ondorio posible bat:
- Energia erreserbak galtzea eskaera fisiologikoei erantzun ahal izateko.
 - Zuhaitzaren gaztetze estrukturala.
 - Heldutasunari dagozkion elementu estrukturalak agertzea, urkilak, esaterako.
 - Inausi den alean mutazio genetikoak agertzea.
40. Hiri-ingurunean, oro har, nola jarri behar da sustrai-sistema zuhaitz bat landatzean, eragiketaren emaitza ahalik eta arrakastatsuen izan dadin?
- Sustraiaren goiko aldea azaleratik hurbil geratu behar da.
 - Sustraiaren goiko aldea ahalik eta sakonen geratu behar da.
 - Sustraiaren goiko aldea jatorrizko azaleraren gainetik geratu behar da, eta ondoren betegarria jartzen da.
 - Alderdi horrek ez du garrantzirik.

41. Gasteizko hiri-ingurunean, oro har —klima epeletako espezieak, koniferoak eta palmondoak alde batera utzita—, zein da landatzeko sasoirik egokiena?
- Udaberriko goren aldia.
 - Udako atseden aldia.
 - Udazkeneko latentzia aldia.
 - Neguko atseden aldia.
42. Zuhaitzez ari garela, zer da adar txupatzaile bat?
- Zuhaitzaren adar nagusietatik, enborretik edo sustraietatik ateratzen den kimua.
 - Enbor nagusiaren azalaren zati baten kolorean dagoen ezberdintasuna, agente patogenoak daudela adierazi ohi duena.
 - Fuste nagusian agertzen den sakonunea, zuhaitzaren hazkundearen hasierako etapetan bigarren mailako adar baten inausketaren edo apurketaren ondorioz.
 - Formazio inausketen ondorioz adaburuaren egitura berezia duten aleak.
43. Landaketez ari garela, zer da "marra"?
- Landare landatu berriaren babes fisikoa da, belarjaleek jan dezaten eragozten duena.
 - Landare landatu berriaren inguruan jarritako zanga erdizirkularra da, ura leku jakin batean biltzen denez ureztapena eraginkorragoa bihurtzen duena.
 - Lerro zuzena da.
 - Landaketa akatsa da, landatu ondoren aurrera egin ez eta hil egiten den landarea.
44. Landatzeko zuloak irekitzeari dagokionez, adieraz ezazu zein den baieztapen zuzena:
- Landatzeko zuloak ahalik eta aurrerapen handienaz irekiko dira, lurren meteorizazioari laguntzeko.
 - Landatzeko zuloak ahalik eta aurrerapen handienaz irekiko dira, lurren meteorizazioa eragozteko.
 - Landatzeko zuloak ahalik eta aurrerapen txikienaz irekiko dira, lurren meteorizazioa eragozteko.
 - Landatzeko zuloak ahalik eta aurrerapen txikienaz irekiko dira, lurren meteorizazioari laguntzeko.
45. Lorezaintzaz ari garela, zer da jorratzea?
- Bere kabuz sortutako landareak kentzeko lana, parkeetan landatutako zuhaitz eta zuhaixkekin lehiatu baitezakete.
 - Landaketen inguruko lurrazala iraultzeko lana, parkeetan landatutako zuhaitz eta zuhaixken sustrai-sistema aireztatu eta oxigenatzen laguntzeko.
 - Landaketa fasean ongarria eransteko lana.
 - Lurraren azalean eta gaueko zein goizeko hotzaren eraginpean dauden landareen azalean izozten den ihintza edo ur-lurrun kondentsatua.
46. Hiriko zuhaitzien diagnostikoan, zuhaitzaren egonkortasunaren balioespena da aldagai garrantzitsuenetako bat. Aldagai horri gagozkiola, adieraz ezazu zein den baieztapen zuzena:
- Zurgiharraren egoera eta jarraitutasuna dira alderdi gakoa eustean, ez zurgizena izan ala ez izatea.
 - Zurgizenaren egoera eta jarraitutasuna dira alderdi gakoa eustean, ez zurgiharra izan ala ez izatea.
 - Bai zurgizenaren bai zurgiharraren egoera eta jarraitutasuna dira alderdi gakoa da eustean.
 - Azalaren egoera eta jarraitutasuna dira alderdi gakoa eustean, ez zurgizena izan ala ez izatea.

47. Ondoren adierazten direnetako bat ez da onddo xilofagoek zurean eragindako usteltze mota bat:
- Usteltze berdea.
 - Usteltze marroi edo arrea.
 - Usteltze zuria.
 - Usteltze biguna.
48. Ekintza hauetako bat ez da eraginkorra hiri parke baten barruan onddo xilofagoen sakabanatzea murrizteko:
- Orbela kentzea.
 - Zuhaitz hilak kentzea.
 - Motzondoak kentzea.
 - Sustrai zurkara handiak kentzea.
49. Soropila duen lorategi itxurako azalera batean, erabilera publikoko hiri parke batean, zein sega-jardunbide da egokiena zerbitzu ekosistemikoak handitzeko?
- Urtean sega kopuru handiagoa dakarren espazioaren kudeaketa.
 - Segak eragozten dituen espazioaren kudeaketa.
 - Urtean sega kopuru txikiagoa dakarren espazioaren kudeaketa.
 - Segen kudeaketak ez du eraginik zerbitzu ekosistemikoetan.
50. Gasteizko parkeetan, zein familia erabili ohi da gehien bat soropilak osatzeko?
- Gramineoak.
 - Errosazeoak.
 - Leguminosoak.
 - Liliazeoak.
51. Lurraren zein parametro alda daiteke medeapenen bitartez?
- Egitura eta osaera, eta elikagaiak (ez pH-a).
 - Egitura eta osaera (ez elikagaiak eta pH-a).
 - Egitura eta osaera, elikagaiak eta pH-a.
 - Elikagaiak eta pH-a (ez egitura eta osaera).
52. Produktu hauetako zein ez da gomendatzen lurraren prestaketan baldin eta pH-a gutxitu nahi badugu?
- Sufrea.
 - Simaurra.
 - Sulfato ferrosoa.
 - Karea.
53. Behar hidrikoei lotuta, nola deritzo hezetasun atmosferiko handia behar duen landareari?
- Higrofitoa.
 - Hidrofiloa.
 - Mesofittoa.
 - Xerofittoa.
54. Lurrak sailkatzean hura osatzen duten mineral-partikulen tamaina oinarritzat hartzen badugu, zein dira kontuan hartzen diren osagai nagusiak?
- Lohia, legarra eta hareaa.
 - Lohia, hareaa eta buztina.
 - Hareaa, legarra eta zohikatza.
 - Buztina, legarra eta zohikatza.
55. Ura hiru modutan aurki daiteke lurrean: ur higroskopikoa, ur kapilarra eta ur grabitazionala. Horietako zeinek du zerikusi handiena buztin kopuru handiko lurrek urari eusteko duten ahalmenarekin?
- Ur kapilarrak.
 - Ur grabitazionalak.

- c) Ur higroskopikoak.
d) Bai ur kapilarrak bai ur grabitazionalak.
56. Lorategi eta parke publikoak ureztatzeko hondakin-ur araztua erabili nahi bada, zein ureztapen sistema da gomendagarriena?
- a) Lurpeko ureztapen lokalizatua.
b) Azaleko ureztapena.
c) Aspertsiozko eta difusiozko ureztapena.
d) Eskuzko ureztapena.
57. Hiriko ur-hornikuntzako sareen sailkapen batek sare adarkatuak, sare erretikulatuak eta sare mistoak bereizten ditu. Zein irizpidetan oinarritzen da horretarako?
- a) Sarearen funtzionamendu moduan.
b) Banatutako uraren presio ezberdintasunean.
c) Banatutako uraren kalitate ezberdinetan.
d) Sarearen tamainan.
58. Hiri-saneamendu bereizleko sistema oso eta ingurumenari dagokionez jasangarri batean, non bildu beharko lirateke errodatze-banatik datozen euri-urak saneamendu sistemari gehitzeko?
- a) Ur zikinen sarean.
b) Euri-uren sarean.
c) Ez dira inola ere saneamendu-sarean bildu behar.
d) Ur zikinen sarean zein euri-uren sarean, unearen eta zirkunstantzien arabera.
59. Europar Batasunak SSL teknologia sustatu zuen berariaz 2013an, hirietan ezar zedin. Zein arloekin dago lotuta teknologia hori?
- a) Hiriko biodibertsitatearekin.
b) Euri-uren bilketarekin.
c) Uraren arazketarekin.
d) Argiteria publikoarekin.
60. Bide-zoru bati dagokionez, zer da zelaigune plano?
- a) Bide-zorua asentu geruzen goiko plano da.
b) Bide-zorua asentu geruzen beheko plano da.
c) Azpian dagoen lurzoru naturalaren goiko plano da.
d) Lubeta edo harbetaren muinaren goiko plano da.
61. Bide-zoruen sekzioei eta berretzei buruzko estatuko 6.1-1C eta 6.3-1C arauen eta erkidegoetako gainerako arauen arabera, zenbat zelaigune kategoria daude?
- a) Hiru.
b) Bi.
c) Lau.
d) Bost.

62. Parametro hauetako zein ez da bide-zoru baten ezaugarri funtzionala?
- Igarotzeak sortzen duen zarata.
 - Argiaren islapena.
 - Azaleraren erregulartasuna.
 - Aldapa.
63. Lubetak egonkortzeko teknika bat adar-meta mailakatuak edo adar-meta biziak jartzea da. Zertan datza teknika hori?
- Zurezko espezieak baliatuz egindako egitura zilindrikoak lurraren azaleran jartzen dira, hesolen laguntzaz finkatuta.
 - Zurezko landareen zotzak edo adarrak elkarren artean tarte erregularrak utziz iltzatzen dira, sustraitu eta garatzeko gauza izan daitezten.
 - Sestra-kurbaren noranzkoan zuhaixken edo zurezko espezieen adar berdeen zerrendak sartzen dira, elkarren ondoan, sustraitzeko aukera izan dezaten.
 - Koko-sarez, polipropilenoaz, gogortasun handiko poliesterrez eta beste zuntz batzuek egindako zakuekin —zuntz organikoz edo zuntz sintetiko biodegradagarriak beteta— osatutako egitura zilindrikoak jartzen dira.
64. Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko 38/1999 Legeak ezartzen duenaren arabera, zein da bermealdia eraikitzaileak obren amaiera edo akaberako elementuei eragiten dioten gauzatze-akatsen ondorioz sortutako kalte materialen erantzukizuna bere gain har dezan?
- Urtebete.
 - Hiru urte.
 - Bost urte.
 - Hamar urte.
65. Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko 38/1999 Legearen arabera, noiz egiten da zuinketa akta?
- Obrak hasi aurretik.
 - Obra hasi ondoren eta lurrak mugitzen hasi aurretik.
 - Obra hasi ondoren eta egitura-elementuak gauzatzen hasi aurretik.
 - Obra bukatu ondoren.
66. Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko 38/1999 Legearen arabera, hauetako zeinek ez du zuinketa akta sinatzen?
- Sustatzaileak.
 - Obra zuzendariak eta obra gauzatzearen zuzendariak.
 - Gauzatze faseko Segurtasun eta Osasun koordinatzaileak.
 - Eraikitzaileak.
67. Zein da eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko 209/2014 Dekretuaren aplikazio-eremua?
- Eraikingintzat hartzen diren eta proiektua behar duten obra guztiak, urbanizazio-proiektua behar duten urbanizatzeko obrak, eta ingeniariaritzaz zibileko obrak, hots, azpiegitura, obra hidrauliko eta garraioetarako obrak.
 - Eraikingintzat hartzen diren eta proiektua behar duten obra guztiak, eta urbanizazio-proiektua behar duten urbanizatzeko obrak. Dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira ingeniariaritzaz zibileko obrak, hots, azpiegitura, obra hidrauliko eta garraioetarako obrak.
 - Urbanizazio-proiektua behar duten urbanizatzeko obrak, eta ingeniariaritzaz zibileko obrak, hots, azpiegitura, obra hidrauliko eta garraioetarako obrak. Dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira eraikingintzat hartzen diren eta proiektua behar duten obra guztiak.
 - Eraikingintzat hartzen diren eta proiektua behar duten obra guztiak, eta ingeniariaritzaz zibileko obrak, hots, azpiegitura, obra hidrauliko eta garraioetarako obrak. Dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira urbanizazio-proiektua behar duten urbanizatzeko obrak.
68. Obrak programatzeari dagokionez, zein da ezberdintasun nagusia Gantt diagraman oinarritutako metodoaren edo PERT diagraman oinarritutakoaren artean?
- PERT diagramak ez ditu adierazten jarduera ezberdinen arteko erlazioak; Gantt diagramak, bai.
 - PERT diagramak ez ditu adierazten jarduera bakoitzerako aurreikusitako guztizko denborak; Gantt diagramak, bai.

- c) Gantt diagramak ez ditu adierazten jarduera ezberdinen arteko erlazioak; PERT diagramak, bai.
- d) Gantt diagramak ez ditu adierazten jarduera bakoitzerako aurreikusitako guztizko denborak; PERT diagramak, bai.
69. Obren programazioaz ari garela, zer da bide kritikoa?
- a) Proiektu-planifikazioan denborak eta epeak kalkulatzeko erabilitako sistema, algoritmoetan oinarritua.
- b) Proiektu-planifikazioan material-bilketak eta ibilbideak kalkulatzeko erabilitako sistema, algoritmoetan oinarritua.
- c) Proiektu-planifikazioan denbora eta epeen arteko erlazioa grafikoki irudikatzeko erabiltzen den diagrama.
- d) Obren eremuan materialaren eta langileen ibilbideek osatutakoa, aldi berean egiten diren jarduera ezberdinen artean interferentziarik ez gertatzeko moduan kalkulatu.
70. Eraikuntza obretarako segurtasun eta osasunari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, noiz da nahitaezkoa segurtasunari eta osasunari buruzko azterketa obra batean?
- a) Aurreikusitako iraupena 30 lanegunetik gorakoa den guztietan.
- b) Aurreikusitako iraupena 30 lanegunetik gorakoa denean, eta uneren batean aldi berean 20 langiletik gora enplegatuta daudenean.
- c) Langilearen segurtasun eta osasunerako arrisku objektiboko arrazoiak daudenean.
- d) Uneren batean aldi berean 20 langiletik gora enplegatuta daudenean.
71. Eraikuntza obretarako segurtasun eta osasunari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, langilearen eskubidea da:
- a) Obran bere segurtasun eta osasunarekin lotuta hartu beharreko neurri guztiei buruzko informazio egokia jasotzea.
- b) Ekipamendu egokia jasotzea, obran bere segurtasun eta osasuna bermatzeko moduan.
- c) Elikadura egokia jasotzea, obran bere segurtasun eta osasuna bermatzeko moduan.
- d) Obran bere segurtasun eta osasuna babestuko delako bermea.
72. Nork landu behar du Segurtasun eta Osasun Plana?
- a) Sustatzaileak.
- b) Kontratatistak.
- c) Obra-zuzendariak.
- d) Proiektugileak.
73. Bide publikoan egiten diren lanetarako seinaleak eta balizak arautzeko Gasteizko udal ordenantzaren arabera, oinezkoen ibilbideetan eta oinezkoen pasagune gisa seinaleztatuta dauden galtzada- zatietan,
- a) igarobidea libre utzi beharko da.
- b) igarobidea libre utzi beharko da ekipamendu publiko baten sarbideari eragiten dionean.
- c) igarotzeko alternatibak egokitu eta adierazi beharko dira.
- d) igarobidea libre utzi beharko da igarotzeko alternatibarik ez dagoenean.

74. Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, ingurumenean ondorio adierazgarriak eragin ditzaketen proiektuei ingurumen ebaluaziorako prozedura ezarri behar zaie. Proiektuen ingurumen-ebaluaziorako zenbat prozedura mota ezartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko marko juridikoak, eta zein dira?
- Hiru mota: ingurumen eraginaren ebaluazio arrunta, ingurumen eraginaren ebaluazio sinplifikatua eta ingurumen eragin sinplifikatuaren ebaluazioa.
 - Hiru mota: ingurumen eraginaren ebaluazio arrunta, ingurumen eraginaren aparteko ebaluazioa eta ingurumen eraginaren ebaluazio sinplifikatua.
 - Bi mota: ingurumen eraginaren ebaluazio arrunta eta ingurumen eraginaren ebaluazio sinplifikatua.
 - Lau mota: ingurumen eraginaren ebaluazio arrunta, ingurumen eraginaren ebaluazio sinplifikatua, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta eta ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua.
75. Europako Kontseiluak 2000an idatzi zuen Paisaiaren Europako Hitzarmena, Florentzian. Hitzarmen hori indarrean dago Espainian?
- Bai, 2000. urteaz geroztik.
 - Bai, 2008. urteaz geroztik.
 - Bai, 2018. urteaz geroztik.
 - Ez.
76. Paisaiaren Europako Hitzarmenaren arabera, paisaiarekin lotutako zein neurri ez dago sartuta berresten duten aldeek hartzen dituzten berariazko konpromisoen barruan?
- Trebakuntza eta heziketa.
 - Identifikazioa eta kalifikazioa.
 - Aplikazioa.
 - Ekintzen jarraipena.
77. Nola definitzen du Paisaiaren Europako Hitzarmenak "paisaia" terminoa?
- Lurraldearen edozein zati, biztanleriak hautematen duen moduan, zeinaren izaera natur edota giza faktoreen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza baita.
 - Lurraldearen edozein zati, biztanleriak hautematen duen moduan, zeinaren izaera natur faktore hutsen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza baita.
 - Lurraldearen edozein zati, biztanleriak hautematen duen moduan, zeinaren izaera giza faktore hutsen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza baita.
 - Lurraldearen edozein zati, biztanleriak nola hautematen duen alde batera utzita, zeinaren izaera natur edota giza faktoreen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza baita.
78. Hiri-inguruneko irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoen alorrean Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudiaren arabera, zenbatekoa izan behar du oztoporik gabeko gutxieneko igarotze-zabalerak hiri parkeetako oinezkoentzako ibilbideetan?
- Metro batekoa.
 - 2 metrokoa.
 - 3 metrokoa.
 - Gurpil-aulki bat igarotzea ahalbidetzen duena.
79. Hiri-inguruneko irisgarritasunari buruzko teknikoen alorrean Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudiaren arabera, zenbatekoa izan behar du gehieneko aldapak oinezkoentzako ibilbideetan?
- % 6koa luzetarako aldapetan eta % 1,5ekoa zeharkako aldapetan.
 - % 6koa luzetarako aldapetan eta % 2koa zeharkako aldapetan.
 - % 8koa luzetarako aldapetan eta % 1,5ekoa zeharkako aldapetan.
 - Gurpil-aulki bat seguru igarotzea ahalbidetzen duena.

80. Hiri-inguruneko irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoen alorrean Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudiaren arabera, oinezkoentzako ibilbideetan kokatuta dauden zuhaitzek txorkoz inguratuta egon behar dute? Baiezkoan, nolakoak izan behar duten txorkoek?
- Bai, eta soropilez estalita egon behar dute.
 - Bai, eta material iragazkorrez estalita egon behar dute.
 - Bai, eta inguruko zoladurarekin berdindutako elementuez estalita egon behar dute.
 - Ez.
81. Euskal Autonomia Erkidegoan zuhaitz apartekoak babesteko indarrean dagoen araudiaren arabera, ba al da aparteko zuhaitzik Gasteizko udalerrian?
- Bai, Ursulinen ikastetxearen ondoko sekuoia erraldoia.
 - Bai, Prado parkearen ondoko sekuoia erraldoia.
 - Bai, Santa Teodosiako ehunka urteko haritza, Florida parkean, Eusko Legebiltzarraren ondoan dagoena.
 - Ez.
82. Euskal Autonomia Erkidegoan zuhaitz apartekoak babesteko indarrean dagoen araudiaren arabera, zeini dagokio lehenetasunez apartekotzat jotako zuhaitzen kudeaketa?
- Kokaturik daudeneko udalerriko udaleko organo eskudunei.
 - Kokaturik daudeneko lurralde historikoko foru aldundiko organo eskudunari.
 - Eusko Jaurilaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko organo eskudunei.
 - Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko organo eskudunei.
83. Arabako Lautadako baso-irlak balio ekologiko handiko espazioak dira. Haran hondoak —Gasteizko udalerrria kokatuta dagoenaren antzekoak— betetzen zituzten basoen aztarna dira. Zein baso mota da?
- Quercus roburrez osatutako harizti eutrofikoa.
 - Quercus pyrenaicaz osatutako ameztia.
 - Fraxinus excelsior eta/edo Fraxinus angustifoliaz osatutako lizardiak.
 - Pagadi silizikola.
84. Adieraz ezazu espezie hauetako zein ez den Gasteizko udalerrian aurki daitekeen baso mota honen adierazgarria: erkamezti subkantauriarra eta haren segizioa.
- Arbustua (*Ligustrum vulgare*).
 - Astigar arrunta (*Acer campestre*).
 - Txaparra (*Quercus coccifera*).
 - Quercus faginea*.
85. Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren lurzorua sailkapenaren arabera eremu hauetan kokatutako parkeen sare bat da Eratzun Berdea:
- Hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarria bakarrik.
 - Lurzoru urbanizaezinean bakarrik.
 - Hiri-lurzoruan bakarrik.
 - Hiri-lurzoruan, lurzoru urbanizagarrian zein lurzoru urbanizaezinean.
86. Ondare arkeologikoa Eratzun Berdean integratuta dago? Integratuta dagoela joko da ondare arkeologikoaren barruko elementuren bat parkea egokitzeko proiektuan kontuan hartu bada:
- Bai, Zadorra ibaiko parkean.
 - Bai, Salburuko parkean.
 - Bai, Zabalganeko parkean.
 - Ez.

87. Espazio hauetako zein dago Eraztun Berde sendotuaren barruan gaur egun:
- Arkaiako arkeologia aztarnategia.
 - Alegria ibaiaren korridorea.
 - Jundiz muinoa.
 - Lasarteko legar-hobiak.
88. Espazio hauetako zein dago Eraztun Berde sendotuaren barruan gaur egun:
- Mendizabala ("Monte de la tortilla" izena ere ematen zaio).
 - Olarizuko lorategi botanikoa.
 - Atxako arkeologia aztarnategia.
 - Nebera gaina.
89. Eraztun Berdearen barruko Zabalganeko basoa, hiriko zein puntu kardinaletan dago?
- Iparraldean.
 - Hegoaldean.
 - Ekialdean.
 - Mendebaldean.
90. Parke hauetako zein ez da Gasteizko parke eta lorategien multzoaren barruan sartzen:
- Heraclio Fournier lorategiak.
 - Mendizabaleko parkea ("Monte de la tortilla" izena ere ematen zaio).
 - Etxanobe lorategiak.
 - San Martineko parkea.
91. Prado parkean bada zuhaixka multzorik?
- Bai, baina parkearen perimetroan bakarrik.
 - Bai, oro har.
 - Bai, baina erdiko gunean bakarrik.
 - Ez.
92. Florida parkean bada zuhaixka multzorik?
- Bai, oro har.
 - Bai, baina parkearen perimetroan bakarrik.
 - Bai, baina erdiko gunean bakarrik.
 - Ez.
93. Gasteizko udalerriko konektibitate ekologikoari buruz Udalak argitaratutako azken azterlanean, bederatzi gune balio ekologiko handiko eremutat identifikatzen dira, eta horiek oinarritzat hartuz balioesten dira konektibitate ekologikoaren egoera eta beharrak. Horietako batzuk Natura 2000 Sarean eta/edo Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarean sartutako espazioak dira. Hala ere, udalaren proposamenak identifikatutako gunetako bat ez dago sartuta ez Natura 2000 Sarean ez EAeko Korridore Ekologikoen Sarean. Zein da?
- Arakako baso-irla.
 - Zadorra ibaia
 - Salburuko hezegunea.
 - Badaia-Arrato mendiak.
94. Gasteizko udalerriko konektibitate ekologikoari buruz Udalak argitaratutako azken azterlanean, zenbait xede-espezie identifikatzen dira konektibitate azterketak oinarritzeko. Hauetako zein ez da xede-espeziea?
- Basurdea.
 - Lepahoria.
 - Baso-igel jauzkaria.
 - Azeria.

95. Gasteizko udalerriko konektibitate ekologikoari buruz Udalak argitaratutako azken azterlanean, zenbait korridore ekologiko zehazten dira xede-espezieen beharrian ekologikoen arabera. Zenbat korridore ekologiko mota ezartzen ditu?
- Bat: korridore ekologiko orokorrak.
 - Bi: basoetakoak eta ibaietakoak.
 - Hiru: basoetakoak, ibaietakoak eta nekazaritzakoak.
 - Lau: basoetakoak, ibaietakoak, nekazaritzakoak eta hirikoak.
96. Gasteizko parke eta lorategien ingurumen kudeaketari dagokionez, Udalak zenbait ekintza pilotu abiarazi zituen hiriko auzo batean, hiri-azpiegitura berdearen proposamenarekin lotutako printzipio batzuk aplikatuz. Adieraz ezazu zein auzo den:
- Adurtza auzoa.
 - Lakua auzoa.
 - Salburua auzoa.
 - Zabalgana auzoa.
97. Gasteizko parke eta lorategi batzuetan ur kontsumo gutxiko eta/edo kontsumo eraginkorreko printzipioak aplikatzen dira aspalditik. Adieraz ezazu ekintza hauetako zein ez den oraindik aplikatu Gasteizen:
- Etxebizitza blokeetan euri-urak bildu eta biltegitratzea barruko patioak ureztatzeko.
 - Berdeguna jakin batzuetan sega azalerak eta kopurua gutxitzea.
 - Ureztapenaren kudeaketa adimentsua, sentsoreetan eta kontrol aplikazioetan oinarritutako sistema automatizatuen bitartez.
 - Akuiferotik ateratako ura parkeetan kokatutako berariazko biltegitan gordetzea eta ureztatzeko erabiltzea.
98. Indarrean dagoen HAPOaren arabera, zein erabilera xehatu aurreikusten ditu espazio librean erabilera globalak (5.03.35 artikulua):
- Hiri parkeak, berdegune publikoak eta erabilera publikoko espazio libreak.
 - Hiri parkeak, berdegune publikoak, erabilera publikoko espazio libreak eta berdegune pribatuak.
 - Eraztun Berdea, hiri parkeak, berdegune publikoak, erabilera publikoko espazio libreak eta berdegune pribatuak.
 - Eraztun Berdea, hiri parkeak, berdegune publikoak eta erabilera publikoko espazio libreak.
99. Indarrean dagoen HAPOan espazio librean erabilera globalerako ezarritako baldintza orokorren arabera, zein erregimen dagokie espazio librean sistema orokor edo lokalean dauden landare-espezieei, eta zein baldintzatan (5.03.35 artikulua)?
- Babes erregimen orokorraren barruan sartuta daude, beraz, berariazko udal lizentzia beharko da ebakitzeko.
 - Babes erregimen bereziaren barruan sartuta daude, beraz, berariazko udal lizentzia beharko da ebakitzeko.
 - Babes erregimen orokorraren barruan sartuta daude, beraz, udal erregistro batean behar bezala inbentariatutako espezieak ebakitzeko berariazko udal lizentzia beharko da.
 - Ez die eragiten babes erregimen orokorrak, beraz, ez da behar berariazko udal lizentziarik horiek ebakitzeko.
100. Gasteizen berdeguneak sortzeari buruzko ordenantza berdegune pribatuetan ere aplikatu behar da?
- Bai, erabilera publikokoak badira eta Udala arduratzen bada mantentzeaz.
 - Bai, erabilera publikoak badira, mantentzeaz zein arduratzen den gorabehera.
 - Bai, beti.
 - Ez, inola ere ez.
101. Gasteizen berdeguneak sortzeari buruzko ordenantzak ezartzen dituen diseinu irizpideen barruan, espazioen ezaugarri ekologikoei buruzko atalean, zein parametro aipatzen da diseinuan bete beharreko baldintza nagusien artean?
- Landaredia potentziala.
 - Landaredia potentziala, ubideak eta orografia.
 - Bertako landaredia.
 - Bertako landaredia, ubideak eta orografia.
102. Parametro hauetako bat ez da diseinu irizpidetzat aipatzen Gasteizen berdeguneak sortzeari buruzko ordenantzan:

- a) Biodibertsitatea.
- b) Estetika.
- c) Eskala erlazioak.
- d) Esanahia.

103. Gasteizen berdeguneak sortzeari buruzko ordenantzak hau ezartzen du ureztapenari dagokionez:

- a) 25.000 m²-tik gorako eremu landatua duten berdegune sortu berrietan, edatekoa ez den urarekin ureztatzeko aukerak erakusten dituen azterketa bat aurkeztu beharko da.
- b) Berdegune sortu berrietan, edatekoa ez den urarekin ureztatzeko aukerak erakusten dituen azterketa bat aurkeztu beharko da.
- c) 500 m²-tik gorako eremu landatua duten berdegune sortu berrietan, edatekoa ez den urarekin ureztatzeko aukerak erakusten dituen azterketa bat aurkeztu beharko da.
- d) 25.000 m²-tik gorako eremu landatua duten berdegune sortu berrietan, ureztatzeko aukerak erakusten dituen azterketa bat aurkeztu beharko da.

104. Gasteizen berdeguneak sortzeari buruzko ordenantzan ezarritako gutxieneko baldintzen arabera, zein baldintza bete behar da soropila jarri ahal izateko:

- a) Ez da gutxieneko azalerarik ezartzen, baina udal ente eskudunak alde aurretik txostena eman behar duela zehazten da.
- b) Gutxieneko azalera 50 m²-koa izan beharko da, eta udal ente eskudunak alde aurretik txostena eman beharko du.
- c) Gutxieneko azalera 500 m²-koa izan beharko da, eta ez da udal ente eskudunaren alde aurreko txostenik beharko.
- d) Gutxieneko azalera 500 m²-koa izan beharko da, eta udal ente eskudunak alde aurretik txostena eman beharko du.

105. Non aplikatu beharra dago Gasteizko zuhaitziak kudeatu eta babesteari buruzko ordenantza?

- a) Hiri parke eta lorategien tipologian bakarrik.
- b) Eraztun Berdearen tipologian bakarrik.
- c) Bai parke eta lorategien tipologian bai Eraztun Berdearenean ere.
- d) Parke eta lorategien tipologian eta Eraztun Berdearen tipologian, azken hori Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean hiri-lurzorutzat sailkatuko lurzoruan dagoenean.

106. Zein dira hiriko zuhaitzen balioak Gasteizko zuhaitziak kudeatu eta babesteari buruzko ordenantzaren arabera?

- a) Ingurumenarekin, ekologiarekin, gizartearekin eta paisaiarekin lotutakoak.
- b) Ingurumenarekin, ekologiarekin, gizartearekin, paisaiarekin eta ekonomiarekin lotutakoak.
- c) Ingurumenarekin, gizartearekin, paisaiarekin eta kulturarekin lotutakoak.
- d) Ordenantza horrek ez du hiriko zuhaitzen baliorik ezartzen.

107. Gasteizko zuhaitziak kudeatu eta babesteari buruzko ordenantzaren arabera, zer da segurtasun zona?

- a) Obrak egitean seinaleztatu beharreko zona.
- b) Edozein eraikuntza edo hiri-altzaritatik babestu beharreko zona.
- c) Zuhaitzaren egonkortasuna bermatzeko errespetatu beharreko zona.
- d) Etxeko maskotak aske ibil daitezkeen zona.

108. Gasteizko zuhaitziak kudeatu eta babesteari buruzko ordenantzaren arabera, zerk zehazten du segurtasun zona?

- a) Sustrai oinarriaren erradioari gehi metro bateko segurtasun tarte bati dagokion distantziak.
- b) Sustrai oinarriaren erradioari gehi 10 metroko segurtasun tarte bati dagokion distantziak.
- c) Adaburuaren diametroari gehi metro bateko segurtasun tarte bati dagokion distantziak.
- d) Sustrai oinarriaren diametroari gehi 5 metroko segurtasun tarte bati dagokion distantziak.

109. Gasteizko zuhaitziak kudeatu eta babesteari buruzko ordenantzaren arabera, zer da tantakako zona?

- a) Zuhaitz edo zuhaixkaren adaburuaren proiektzio horizontalak hartzen duen lur azalera.
- b) Tantakako ureztapen-sistemak estaltzen duen lur azalera.
- c) Euria eginez gero oinezko bat babestuta ez dagoen lur azalera.
- d) Ordenantzak ez du termino hori definitzen.

110. Parametro hauetako zein ez da aipatzen Hiriko Zuhaitziak Kudeatu eta Babesteari buruzko Ordenantzan zuhaitzen kategoriak eta tamainak zehazterakoan?
- Adaburuaren diametroa.
 - Garaiera.
 - Lor daitekeen gehieneko garapena.
 - Sustraien garapena.
111. Gasteizko hiri zuhaitziak kudeatu eta babesteari buruzko ordenantzaren arabera, zein da zuhaitzaren ardatzetik eraikuntza-lerroraino utzi beharreko gutxieneko distantzia?
- Metro 1.
 - 2,5 metro.
 - 10 metro.
 - Distantzia aldakorra da, zuhaitzaren kategoria eta tamainaren arabera.
112. Gasteizko hiri zuhaitziak kudeatu eta babesteari buruzko ordenantzaren arabera, zuhaitzen adaburuak eta enborrak espaloi zabalera jakin bat eta adarrik gabeko altuera jakin bat libre utzi behar dute oinezkoek igarotzeko. Zenbatekoak dira horiek?
- metro 1 eta 2,25 metro, hurrenez hurren.
 - 2,5 metro eta 2,25 metro, hurrenez hurren.
 - 2,5 metro eta 5 metro, hurrenez hurren.
 - Ez da zuhaitzen adaburuak eta enborrak libre utzi beharreko espaloi zabalerarik. Adarrek libre utzi beharreko oinezkoen igarobideari dagokionez, 2,25 metro izan behar duela ezartzen da.
113. Gasteizko berdeguneen erabilerari buruzko ordenantzaren arabera, zein administrazio atalek du eskumena udalerriko hiri berdeguneak kudeatzeko?
- Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak.
 - Udaleko Ingurumen Sailak.
 - Udaleko Hiri Paisaiaren Bulegoak.
 - Udaleko Eraztun Berdearen eta Bioaniztasunaren Atalak.
114. Gasteizko berdeguneen erabilerari buruzko ordenantzaren arabera, jarduera hauetako zein ez dago berariaz debekatuta berdeguneetan?
- Kanpadendak instalatzea.
 - Arropa garbitzea.
 - Berdeguneetatik zaldiz ibiltzea.
 - Berdeguneak aziendak bazkatzera eramateko erabiltzea.
115. Gasteizko berdeguneen erabilerari buruzko ordenantzaren arabera, zenbait lan egin behar dira berdegune pribatuak zuzen kontserbatuta eta garbi edukitzeko. Adieraz ezazu jarduera hauetako zein ez den berariaz eskatzen ordenantzan:
- Landaketen egoera fitosanitarioa kontrolatzea.
 - Garbitasuna eta higiene baldintzak mantentzea.
 - Zuhaitzak inausi eta tratatzea.
 - Soropila duten azalaren sega eta mantentzea.
116. Gasteizko berdeguneen erabilerari buruzko ordenantzaren arabera, zuhaitz bati kalterik eginez gero zein arauri jarraituko zaio hura balioesteko?
- Udalak Cádizko Araua hartuko du balioespenerako metodo gisa.
 - Udalak Granadako Araua hartuko du balioespenerako metodo gisa.
 - Udalak Lisboako Araua hartuko du balioespenerako metodo gisa.
 - Udalak ondarearen balioespena aginduko du, eta kaltea egin duenak ordaindu beharko du hori.

117. Zein maiztasunarekin argitaratzen du Gasteizko Udalak Gasteizko Tokiko 21 Agendaren adierazleen buletina?
- Urtean behin.
 - Bi urtean behin.
 - Bost urtean behin.
 - Agiri hori ez da aldiari behin argitaratzen.
118. Gai arlo hauen arteko zein ez da garatzen Gasteizko Tokiko 21 Agendaren 35 adierazleetan?
- Kultura eta artea.
 - Ingurune sozioekonomikoa.
 - Osasuna eta ingurumen-arriskuak.
 - Hirigintza eta lurraldea.
119. Adieraz ezazu zein mugarririk jarri zuen abian 21 Agendaren prozesua Gasteizen:
- Udalak iraunkortasunaren aldeko hiri eta herrien Aalborgeko Karta sinatzeak.
 - Udalak Brundtland txostena —NBERentzat egindakoa eta hasieran "Gure etorkizun komuna" deitutakoa— berresteak.
 - Udalak Ingurumen eta Garapeneri buruzko Rioko Deklarazioa berresteak.
 - Hiriak European Green Capital saria lortzeak 2012an.
120. Europa eraikinetik irten, Gasteiz hiribidean barrena hegoalderantz kilometro bat egin eta trenbidearen azpitik igaro ondoren, parke bat topatuko duzu, non lasai erlaxatu ahalko zaren. Zein da?
- El Boscoren lorategia.
 - Florida parkea.
 - Prado parkea.
 - San Martineko parkea.